

D. FERNANDO PRADO AYUSO, CMF
POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA,
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Prot. Zk./Núm. 2026/00014

DECRETO DE CONVOCATORIA DEL PRIMER SÍNODO DIOCESANO DE LA IGLESIA QUE PEREGRINA EN GIPUZKOA

A cuantos el presente vieren, leyeren o escucharen, gracia y paz de parte de Dios nuestro Padre y de Jesucristo, el Señor.

La Iglesia de Dios que peregrina en Gipuzkoa ha recorrido ya más de setenta y cinco años de historia como diócesis con obispo propio. Muchas generaciones de cristianos anunciaron antes aquí el Evangelio, celebraron la fe, sirvieron a los pobres y sembraron esperanza. Recibimos hoy agradecidos esta herencia y asumimos la responsabilidad de transmitirla con fidelidad a quienes vendrán después de nosotros.

Considerando los profundos cambios sociales, culturales y religiosos de las últimas décadas y convencido de la necesidad apremiante de anunciar nuevamente a Jesucristo, nuestra Esperanza; habiendo orado y reflexionado sobre ello; oído el parecer positivo del Consejo Episcopal, del Consejo Presbiteral, del Colegio de Arciprestes y del Consejo Pastoral Diocesano, así como de otras mujeres y hombres de probada virtud, ponderadas las circunstancias presentes de nuestra Iglesia particular y buscando únicamente su mayor bien espiritual y pastoral; invocando el nombre del Señor, y confiando en la asistencia del Espíritu Santo, por el presente Decreto

CONVOCO el primer Sínodo Diocesano de la Diócesis de San Sebastián.

Convoco a los presbíteros y diáconos, a los miembros de la vida consagrada, a los movimientos y realidades eclesiales y a todos los fieles laicos que forman este Pueblo santo de Dios que peregrina en Gipuzkoa, a los aquí nacidos y a los que viven entre nosotros y son ya «de casa».

Convoco a nuestras parroquias y comunidades, a nuestros monasterios y centros educativos, a la vida consagrada, a las realidades socio-caritativas, a las asociaciones católicas públicas y privadas de fieles, y a cuantos, desde vocaciones y ministerios diversos, aman y sirven a esta Iglesia.

A todos convoco. A todos necesito. A todos pido que escuchemos.

El Sínodo deberá ser, ante todo, un acontecimiento espiritual. No una mera reorganización de estructuras, ni un parlamento eclesial, ni una negociación de intereses. Será un tiempo de oración, escucha y discernimiento en comunión profunda con la Iglesia y su Tradición, para preguntarnos juntos y con libertad: Señor, ¿qué quieres hoy de tu Iglesia en Gipuzkoa?

Queremos discernir cómo anunciar mejor a Jesucristo, cómo transmitir la fe a las nuevas generaciones, cómo renovar nuestras comunidades y ministerios, cómo ser ante nuestra sociedad profecía de comunión y de paz, cómo estar más cerca de quienes sufren y cómo disponer nuestras estructuras al servicio de la misión.

Habremos de hacerlo sin miedo: sin miedo a las preguntas y sin miedo a las respuestas; sin aferrarnos a aquello que quizá deba cambiar y sin despreciar cuanto hemos recibido de quienes nos precedieron.

El Sínodo Diocesano será conducido y celebrado conforme al Derecho de la Iglesia y a las normas que oportunamente se promulguen.

Desde este mismo día encomendamos al Señor este camino y nos dejamos conducir por su Espíritu. Ponemos nuestro Sínodo Diocesano bajo la protección de Santa María, Nuestra Sra. de Arantzazu, patrona de Gipuzkoa, y de San Ignacio de Loyola, nuestro patrono.

Firmo este decreto en la fiesta de Santa Teresa de Jesús, mujer apasionada por Cristo y por la Iglesia, reformadora valiente en tiempos recios y complejos. Que ella nos recuerde que toda verdadera renovación en la Iglesia comienza siempre por dejar que Dios renueve nuestro corazón.

Así, en virtud de la potestad que me corresponde como Obispo diocesano, decreto solemnemente convocado el primer Sínodo Diocesano de la Diócesis de San Sebastián y dispongo que el presente Decreto sea promulgado y dado a conocer a todo el Pueblo de Dios.

Que el Espíritu Santo nos preceda; que Jesucristo camine en medio de nosotros, y que todo sea para mayor gloria de Dios y para el bien de nuestro pueblo.

Dado en San Sebastián, a quince de octubre del año del Señor de dos mil veintiséis, fiesta de Santa Teresa de Jesús, virgen y doctora de la Iglesia.

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Obispo de San Sebastián

Por mandato de S. E. Rvdma.

Luzia Alberro Goikoetxea
Canciller y secretaria general

FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

Prot. Zk./Núm. 2026/00014

GIPUZKOAN ERROMES DABILEN ELIZAREN ELIZBARRUTIKO LEHEN SINODOA DEITZEKO DEKRETUA

Dekretu hau ikusi, irakurri edo entzungo duzuen guztioi, grazia eta bakea Jainko gure Aitarengandik eta Jesu Kristo Jaunarengandik.

Gipuzkoan erromes dabilen Jainkoaren Elizak hirurogeita hamabost urte baino gehiagoko bidea egin du dagoeneko, gotzain propioa izanez. Honen aurretik, kristau-belaunaldi askok Ebanjelioa iragarri, fedea ospatu, behartsuak zerbitzatu eta esperantza erein zuten hemen. Esker onez jasotzen dugu gaur ondare hori, eta gure ondoren etorriko direnei leialtasunez eskualdatzeko erantzukizuna hartzen dugu geure gain.

Azken hamarkadetako gizarte-, kultura- eta erlijio-aldaketa sakonak kontuan harturik, eta Jesu Kristo, gure Esperantza, berriro iragartzeko premiazko beharraz konbentziturik; horren inguruan otoitz egin eta hausnartu ondoren; Gobernu Kontseiluaren, Kontseilu Presbiteralaren, Artzipresteen Kontseiluaren eta Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluaren aldeko iritzia entzunik, baita frogatutako bertute eta zentzuzko beste zenbait emakume eta gizonena ere; gure tokiko Elizaren egungo egoera azterturik eta haren espiritu- eta pastoral-ongia xede izanik; Jaunaren izenari dei eginez eta Espiritu Santuaren laguntzan konfiantza osoa jarriz, Dekretu honen bidez,

Donostiako Elizbarrutiko Lehen Sinodoa DEITZEN DUT.

Dei egiten diet apaizei eta diakonoei, erlijioso-erlijiosei, mugimendu eta eliz errealitateei eta Gipuzkoan erromes dabilen Jainkoaren Herri santua osatzen duten fededun laiko guztiei: hemen jaiotakoei nahiz gure artean bizi eta dagoeneko «etxeko» diren guztiei.

Dei egiten diet gure parrokia eta elkarteei, gure monasterio eta ikastetxeei, biziera sagaratukoei, gizarte- eta karitate-erakundeei, fededunen elkarte katoliko publiko nahiz pribatuei eta, bokazio eta ministerio desberdinak biziz, Eliza hau maite eta zerbitzatzen duten guztiei.

Guztiei egiten dizuet deia. Guztion beharra dut. Guztioi eskatzen dizuet elkarri entzuteko.

Sinodoak, ororen gainetik, gertaera espirituala izan behar du. Ez egituren berrantolaketa hutsa, ez eliz parlamentua, ezta interesen negoziazioa ere. Otoitzerako, entzuteko eta bereizteko garaia izango da, Elizarekin eta beraren Tradizioarekin komunio sakonean, elkarrekin eta askatasunez geure buruari galdetzeko: Jauna, zer nahi duzu gaur Gipuzkoako zure Elizarengandik?

Jesu Kristo hobeto nola iragarri jakiteko bereizmena egin nahi dugu; fedea belaunaldi berriei nola helarazi; gure elkarte eta ministerioak nola berritu; gure gizartearen aurrean komunioaren eta bakearen profezia nola izan; sufritzen dutenengandik nola hurbilago egon; eta gure egiturak misioaren zerbitzura nola jarri.

Beldurrik gabe ari beharko dugu: galderei eta erantzunei beldurrik izan gabe; agian aldatu beharrekoari itsatsi gabe, eta gure aurrekoengandik jaso duguna gutxietsi gabe.

Elizbarrutiko Sinodoa Elizaren Zuzenbidearen eta dagokionean aldarrikatuko diren arauen arabera gidatu eta ospatuko da.

Gaurtik bertatik, Jaunaren esku uzten dugu bide hau eta haren Espirituak gida gaitzan uzten dugu. Gure Elizbarrutiko Sinodoa Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako zaindariaren, eta Loiolako San Ignazioren, gure zaindariaren, babespean jartzen dugu.

Dekretu hau Santa Teresa Jesusenaren jaiegunean sinatzen dut, Kristorekiko eta Elizarekiko maitasun sutsuz bizi izan zen emakumearen egunean; garai latz eta zailetan erreformatzaile ausarta izan zenaren egunean. Gogoraraz diezagula berak Elizaren egiazko berrikuntza oro Jainkoari gure bihotza berritzen uztean hasten dela beti.

Horrela, elizbarrutiko gotzain naizen aldetik dagokidan aginteaz baliatuz, Donostiako Elizbarrutiko lehen Sinodoa solemnitatez deitua dagoela dekretatzen dut, eta Dekretu hau aldarrikatu eta Jainkoaren Herri osoari jakinaraz dadila agintzen dut.

Espiritu Santua izan dezagula aurretik;Jesu Kristo ibil dadila gure artean;eta izan bedi guztia Jainkoaren aintzarik handienerako eta gure herriaren onerako.

Donostian sinatua, bi mila eta hogeita seigarren urteko urriaren hamabostean, Santa Teresa Jesusena, birjina eta Elizako doktorearen jaiegunean.

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Donostiako gotzaina

Gotzain jaunaren aginduz

Luzia Alberro Goikoetxea
Kantziler eta idazkari orokorra